

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Guk eskaintzen dugun APPa erabat berritzailea eta gaur egun dagoenarekin desberdina denez, garrantzi handia emango diogu produktua jendeak ezagutzeko prozesuari. Horregatik, bezeroengana helarazteko, kolaborazioak eta kanpainak egingo ditugu.

Alde batetik, publizitatea izango da gure produktua ezagutzera emango duen kanal nagusia. Haien artean, sare sozialak dira nagusienak, hots, Instagram eta TikTok. Hau da, gure sare sozialetan DaltoApp aplikazioaren espantsioaz informatuko dugu.



Izan ere, gure sare sozialei hasiera ematen diegun bitartean, influencer zerbitzuak kontratatuko ditugu, APParen enbaxadore moduan; honela, bezero gehiagori iritsiko zaio aplikazioaren berria. Gure kasuan Juanpa Zurita (argazkikoa) hautatuko dugu kolaboratzaile. Daltonismoaz diagnostikatuta dagoen influencer gazte bat da. Mexikarra da eta 12 milioi baino gehiagoko jarraitzaileak ditu Instagramen. Arrazoi horregatik uste dugu berekin harremanetan jartzea oso onuragarria izan daitekela gure aplikazioaren ezagutza emateko.



Bestalde, osasun erakundeen artean ezagutaraziko dugu, medikuek eta pazienteek aplikazioaren berri izan dezaten; haien artean, ospitaleak eta anbulatorioak izango dira nagusiki. Oftalmologiaren kontsultetan, alegia, daltonismo gaixotasuna duten pertsonen aplikazioa eskaintzea oso egokia izango litzateke honen garapena emateko.



Gainera, kalean publizitatea jarriko dugu ere; haien artean markesinak, hots, bus geltokietako paretetan jartzen diren kartel publizitarioak. Honek edonork ikusteak eta aplikazioarekiko interesa piztea eragingo du. Bertan QR bat agertuko da, zeina aplikazioa nola erabiltzen den azaltzen duen dokumentu batera bideratzen duen.



Bukatzeko, herriko plazetan, parketan eta jendea egon daitekeen lekuetan, kanpainak jarriko ditugu. Bertan jokuak prestatuko ditugu daltonismoaren ezagutza emateko eta gure aplikazioa erakusteko aukera izateko.



Baina, nola jakingo dugu gure bezeroek zer iritzi duten DaltoApp-i buruz? Horretarako feedback prozesuari erreparatuko diogu. Aplikazioan bertan agertuko den erlaitz baten bidez eman ahal izango digute haien iritzia. Izarren bidez puntuatu beharko dute aplikazioa eta nahi izatekotan, iruzkinak idazteko toki askea izango dute.

Arazo bat izatekotan, zerbitzu online bat egongo da, non gure langile batek edozein zalantza argitu ahal izango du. Bezeroek, DaltoApp deskargatzen dutenean posta elektronikoz jasoko dute aplikazioa aktualizatu egin behar dutenean edo berririk izatekotan; adibidez, bideo berriren bat ateratzekotan edo elkarrizteka berririk izatekotan.

Hortaz gain, oso garrantzitsua eta adierazgarria iruditzen zaigun beste aspektu bat aplikazioaren banaketa kanala da. Kasu honetan, bai Play Storen bai App Storen aurki daitekeen aplikazioa da. Honi esker, edozein ukipen-mugikor edukiz, ez duzu arazorik izango deskargatzerako orduan.

